

Añarbeko baso-erreserba eraikiz

Bioaniztasunaren aldeko azken basolanak Errenterian: gure hariztiak eta pagadiak biziberritzen ari gara

Iñaki Azkarate

Gure herriak Aiako Harriko Parke Naturalaren barruan dago 1995etik, eta ordutik udal-erriaren %50a Parkearen barruan gelditu zen, erabateko lehentasunez natur kontserbaziora zuzendurik. Era berean, Natura 2000 Sarean dago Aiako Harria, Europako 26.500 eremuetako eta Euskal Herriko beste naturgune garrantzitsuen zerrenda osatuz: Ulija-Jaizkibel, Txingudi, Artikutza, Larrun, Aralar, Bardeak edo Urdaibai.

Urteetan zehar inbertsio publikoak hiri-eremuetara zuzendu dira, artifizializaio-maila eraginez Oarsoaldean: industrialde berriak, Zamalbideko autopista berria, Fanderia edo Markola auzo berriak herrian,... Jarduera horiek guztiek eragin zuzena izan dute lurraldean eta bioaniztasunean, habitat naturalen eta espezieen galera garrantzitsuak egonik. Natur kontserbazioan inbertsio publikoak egiteko garaia heldu da, gure hariztiak, pagadiak eta flora eta basafaunaren espezieak berreskuratuz. Bide honetan, 900 hektareatako Añarbeko Baso-Erreserba izendatuko da laster gure mendi komunalean.

Añarbeko basabizitzak habitat natural osasuntsu eta konplexuak behar ditu:

Herriko mendiez gozatzen duzuen arreta deituko zizuen, Aiako Harria Parke Naturean,

Aldurako itzulian ikusiriko hainbat basolanek, Idoia-Susperregitik igota, Malbazarreko lepo ondoko Otsarteko pinudian eginikoak, Ezpalaungiko bordatik aurrera Arginotzekoak, Igantziko pinudiarena edota bertako zabalean, agerturiko itxiturak. Zuei eta joaterik ez duzueni azalduko dizkizuegu hurrengo lerrootan, 2011-2012ko kontserbazioko basolan publiko hauek.

Basabizitza anitza bezain osasuntsua izateko, lehenik eta behin bizileku egokia behar da, hau da, ongi kontserbaturiko habitat naturalak: basoak, ibaiak, itsasoa, aintzirak, harkaitzak, padurak, larreak,... Urte askotan basoko lanak nagusiki egur-ekoizpen "industrial"ren ikuspuntutik burutu dira, genuen ondare naturalari so egin gabe. Hortik etorri ziren koniferoen egur-landaketa masiboak, batik bat pinu *intsignis* espeziearenak, bertako basoen lekua hartu zutenak.

Pinudi helduek azken urteetan bere funtzioa ere bete dute, egun, eremu batzuetan berezko zuhaitz zaharren gabezia ordezkatzuz eta bere oihanpean naturalki etorritako bertako baso gaztea jasoz. Zuhaitz helduez osaturiko landaketa exotiko artifizial hauek, esan bezala, askotan azpitik naturalizatuak daudenak, espezie askoren bizileku bilakatu dira eta orain horiei esker hainbat animalia berriro agertzen hasi dira, orkatza kasu, eta basoko hegaztiei oro har esaterako ondo dihoakie. Berri batzuk ere etorri dira, okil beltza da deigarriena.



Igantzioko zabalak sortzen ari den heskaia animalia askoren gordeleku izango da.

Errenterriak eta beste herriek erabaki zuten haien mendi publikoetan egur gehiago ez ekoiztea

2002an erabaki hori hartu zuten Irun, Oiartzun, Errenteria, Donostia eta Hernaniko herriek. Eta 2008an Lezoko Udalak. Arrazoa ausarta izan zen: haien herri-mendietan (Aiako Harrian eta Jazikibelen) baso naturalak nahi zituzten berreskuratu eta berreraiki, mendeetako ustiapenen ondoren.

Bioaniztasunak, ordea, basabizitza osotasunean garatu ahal izateko, ongi egituraturiko baso naturalak behar ditu, hots, harizti edo pagadi (adibide pare bat jartzearren) helduak, adin ezberdinetako aleak dituztenak, oihanpe garatuarekin, non zuhaixkakara eta belarkara agertzen diren, eite handiko zuhaitz zaharrak dituztenak, bizitzaz gainezka dagoen egur hilarekin, etab. Egia da, espezie ugari mantendu da eta batzuk berriro ere zabaltzen ari dira aipatu bezala, baina badira dezente oraindik beharko genituzkeenak eta falta ditugunak. Izan ere, animalia eta landare batzuk ekologikoki oso "esijenteak" dira eta ongi kontserbaturiko eremu zabalak behar dituzte, eta horiek, oraindik ez ditugu.

Malbazar, Otsarte, Ezpalaurgi, Igantzi... bertako basoei berriro lekua eginez

Errenterriak azken hamarkadetan baso inguru zoragarriak berreskuratu ditu, hor dago Añarbeko basoa, pagadi alde batetik, eta bestetik hariztia, gaztea bada ere, polita oso, Gipuzkoa eta Bizkaiko haritza leku handiena. Garatu eta hobetu behar dira, baina era berean zabaldu behar dira, bere handitasunean oraindik txikiak direlako. Hortaz, oso garrantzitsua da, esaterako, Otsarten egini niko lana. Han *Fusarium izeneko* pinu-gaitzak jota ihartzen ari zen pinudi gaztea zegoen, azpian bertako landaredia indar handiz zetorrela. Orain pinuak kendu dira eta bertako zuhaitzak jarri dira basoberritze naturalari bultzada emateko asmoz.

Horrela, negu honetan 18.550 zuhaitz eta zuhaixka landatu dira Malbazar-Otsarte aldean, baso natural berri bat eraikitzeko: 4.000 pago, 8.100 haritz, 1.600 lizar, 1.000 gereziendo, 500 urki, 1.000 elorri beltz, 1.500 astigar eta 850 basa-udareondo.

Añarbeko Baso-Erreserbak, zeuden baloreak kontserbatzeaz gain, bioaniztasunaren mesederako berriak lortzeko helburua du eta bide horretan egini niko lana, beste urrats bat da.

Garai honetan Igantzín, eta Argintzen lursail txiki batean, pinudi heldua botatzen ari da. Han ere bertako zuhaitzak landatuko dira, paisaia aldatuz eta biharko ondare naturala landuz eta aberastuz. Gainera, bizi garen krisi-garai honetan diru-iturri bilakatu da, mendia eta bioaniztasunaren kontserbaziorako erabiliko dena.

Igantziko zabalean heskai naturalak eratzeko xedez, 12 zuhaitz eta zuhaixka espezie desberdinez osaturiko bi itxitura egokitu dira. Landatu dira elorri beltzak, erramuak, gorostiak, otsolizarrak eta gurbitzak besteak beste. Ekintza horrek bi helburu ditu: bata espezie askorentzat babeslekua sortzea, eta bestea pista zaharren ibilgailuen aztarnak ezabatzea, larrea berreskuratuz. Heskai naturaletan landare-espezie ugari pilatzeaz gain, makina bat animalia ere ibiltzen da bertako fruituak jaten, habia egiten edota, besterik gabe, gordeleku gisa erabiltzen.



Hurrengoan igelak, saguzarrak eta beste baso-ugaztunen habitat naturalak...

Bagoaz mantso-mantso, aurreko garaietako mendi-politika intentsiboak alde batera utzita, gure bertako basoak berreskuratzen eta berreraikitzen. Okil beltza pagadietan bizi ohi da. Ongi hartuko ditu, beraz, bultzatzen ari diren pagadi berriak. Honez gero Añarbe geurean baditugu 5 txori arotz edo okil: okil handia eta okil txikia, lepitzulia, okil berdea, eta orain okil beltza. Oraindik ordea lan franko egin behar dugu okil ertaina, "txapel gorria", berreskuratzeke. Hark harizti heldu eta zabalak behar ditu.

Añarbeko Baso-Erreserbak dagoena babes-teaz gain, haritzak hedatzeko aukera ematen digu. Otsartetik hasi gara, baina laster beste lursail berri batzuei ekingo diegu. Horrela behar bada, konturatu gabe, edozein egunetan okil ertaina azalduko zaigu, begiak eta belarriak erne!

Eta azkenik, hurrengo inbertsio publikoak mehatxatuta dauden baso-igelak eta basoetako ugaztunen bizi baldintza egokienak berreskuratzerantz zuzenduko dira, populazio iraunkor eta osasuntsuak izan ditzaten.



Okil beltza gure artean da. Horrelakoak dira bere habi-zuloak.